


# Gogoan hartu damutu baino lehen

Seguru egoteko,   
fidatu zure artekariarekin.

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu

## Erne! Lapurretak udan? Ez, eskerrik asko!



*“Egun on. Zure aseguru artekaria naiz, eta zure lapurreta parte idatzi berri dut. Bidali dut aseguru-etxera, kalte-ordaina azkar jaso dezazun. Baina neurriak hartu behar dituzu berriz gerta ez dadin. Logikoena da zure etxea zelatatzen egon izana, sartu baino lehen. Postontziko gutun-azalei erreparatzen diete aurrena. Postontzia beteta egoteak etxean hutsik dagoela esan nahi du. Ondoren, eraikineko sarrera-irteerak zelatatzen dituzte, bizilagunen ohiturak aztertzeko.*

*Lapurreta egitera sartzen direnean, azkenengo solairuraino igotzen dira, eta jaisten hasten dira. Sarrailak behartzea ez da lan zaila izaten”.*

### “Gaitz handiarentzat, erremedio handia”

*“Lapurrek motxila bat edo poltsa txiki bat eramaten dute, eta bertan sartzen dituzte baliozko gauzak (bitxiak, dirua...). Leku berdinetan gordetzen ditugu guztiok: logela nagusiko tiraderetan, barruko arroparen artean. Konplize bat izaten dute kalean, eta telefonoz deitzen die norbait agertzen bada.*

*Babestu zure etxebizitza eta ondasunak, horixe da nire aholkua; aseguratu itzazu behar bezala, eta aukera baduzu, utzi giltzak konfiantzako norbaiti, persianak igo eta jaitsi*

*ditzan, argia piztu dezan eta aldian behin postontzia hustu dezan. Horrela, ez diote zure etxeari erreparatuko”.*

Garrantzitsua da zure ondasun guztiak eta horien balioa zure etxe-aseguruan sartzea; 2013. urtean, Espainiako etxebizitzaren %30ek (8,5 milioi) ez zuten asegururik, eta 10 milioi etxe infra-aseguratuta zeuden. Horrek esan nahi du ezbehar larriren bat gertatuz gero kalte-ordainak ez dituela kalte guztiak estaliko.

### Aholkuak

Ettxera iritsi eta sarraila behartuta ikusten baduzu, ez sartu. Deitu Poliziari, lapurrak barruan egon baitaitezke. Gainera, errazagoa da haien arrastoak hartzea eta pistei jarraitzea.

Horren ondoren, etorri artekaritza bulegora, ekarri salaketa, eta konta iezaguzu zer gertatu den. Egin lapurtutako gauzen zerrenda, eta aurkeztu egiaztagiria (erosketa-fakturak, bitxiekin agertzen zaren argazkiak...).

*“A! Oporretan joaten zaren hurrengo aldian, ez jarri argazkiak Facebooken. Sare sozialetan ezkutatuta egon daitezke lapurrak, zure urratsei jarraitzeko”.*

Hileroko buletina  
Nº 29 / Uztaila 2015

## Datuak Babesteko Agentziak espedientea egin die Zaragozako 2 erakunde finantzariori

Zaragozako Aseguru Artekarien Elkargoak Caixabanken eta Segurcaixa Adeslasen aurkako salaketa jarri du Datatuk Babesteko Agentzian. **Agentziak zehapen-prozedura hasi du “bezero bati bere 2 etxebizitzatarako 2 aseguru egiteagatik, horren baimenik gabe”.**

Jose Luis Carrera abokatuaren arabera, **“Horrelako gehiegikeriak jasaten dituzten bezeroak euren aseguru artekaria jakinaren gainean jartzera animatu nahi ditugu Elkargotik, guk hemendik dagokion modura jokatu ahal izateko”.**

Aurretiazko informazio-espediente baten bitartez, Datuak Babesteko Agentziak uste du indizio nahikoak daudela, kasu honetan, zehapen-prozedura hasteko **arau-hauste larriagatik, “bai datuak baimenik gabe laga izanagatik, bai horiek legez kontra erabili izanagatik”.** Datu Pertsonalak Babesteko Legearen (LOPD) arabera, 6.1 eta 11.1 artikulua urratu dira, eta isuna 300.000 eurokoa izan daiteke Lege horren arabera.

Hala, kontsumitzaileen eskubideen alde jarri da Zaragozako Artekarien Elkargoa, hori baita “kaltetuena”, sistema finantzarioaren horrelako jokaera aldebakarretan.

Elkargoak gure herrialdean indarrean dagoen araudiari ematen dio balioa, eta horren arabera, bankuak helbideratutako datuak berriazko baimenarekin bakarrik erabili daitezke beste helburu batzuetarako. Kasu horietan eta, Agentziaren arabera, bezeroak beti jakin behar du **“datu horiei zer-nolako erabilera emango zaien eta zer helburutarako erabili edota lagako diren”.** Kasu honetan, ez da hala izan, datuak globalki erabili baitira, gurekin, zure aseguru artekariarekin, ez bezala, guk datuak modu indibidualizatu eta pertsonalizatuan erabiltzen baititugu.

## Aseguru inteligenteak eCall-arekin: gidatzeko moduaren arabera ordainduko duzu, nahiz eta gaztea izan



2018ko apiriletik aurrera, Europar Batasuneko ibilgailu guztiek (furgonetek eta turismoek) eCall gailua eduki beharko dute, orain arte gama altuko ibilgailuek bakarrik zutena. Europan 1.500 bizi salba litzake (errepide istripuetan hildakoen %5), eta lesio larrien kopurua %6 jaitsi urtean.

Eurotan, %40rainoko aurrezpena dakar sistema telematiko horrek aseguruaren gidari onentzat, nahiz eta gazteak izan.

### Zer da eCall-a?

Istripua detektatu eta telefono mugikor bidez larrialdi dei bat aktibatzen duen gailu bat. Horrekin batera, MSD izeneko mezu bat bidaltzen du, matxuratutako ibilgailuaren posizioarekin, noranzkoarekin, modeloarekin... Deia jasotzen duen operadoreak zuzenean hitz egin dezake bidaiariekin.

Gailu horrekin, aseguru bat kontratu ahal izango zenuke gaur egun. Zure autoak ez badu seriekoa, aseguru-etxeak jarriko dizu. eCall-ak datu gehigarriak jasotzen ditu, erabilera-orduei, batez besteko abiadurari eta gidatzeko estiloari (zakarkeria) buruz, edota eguneko zer ordutan erabiltzen duzun.

Zure ibilgailua GPS bidez lokalizatuta dago etengabe, 1 Formulako lasterketetan bezala. Beraz, "lapurreten aurkako" sistema bikaina da.

Jasotako datuak "hodei"an gordetzen dira, intimitatea babesteko berme guztiekin. Aseguru-etxeak eta gidariak ikus ditzakete, eta aseguruaren preziora egokitzen dute jasotako informazioa. Zure gidatzeko moduaren arabera izango da kostua.

### Zure estilora "tuneatutako" polizak

"Auto inteligente"ak harreman arinagoa ezartzen du aseguru-etxearen eta bezeroaren artean. Ez zara izen bat eta poliza zenbaki bat. Zure gidatzeko moduari buruzko datu objektiboak daude. Seguruago bidaia dezakezu, eta aurreztu, zuhurra bazara. Kasu horietan, adinak baino garrantzi handiagoa du arduratsua izateak.

Aseguruartekari gisa "polizainteligente" horiek gomendatzen ditugu ondorengo hauentzat: gazteentzat, autoa seme-alabekin partekatzen duten gurasoentzat, kilometro gutxi egiten dituzten pertsonentzat eta, nola ez, gidari onentzat. Enpresa bat baduzu ere, oso baliagarria izango zaizu ibilgailu flotentzat.



### Garabiak autoa hondatu, eta Interneten jakin

Angela aurkeztu nahi dizugu. Emakume honek bere autoa falta zela ikusi zuen, aparkatu eta enkarguak egin ondoren autoaren bila itzuli zenean. Udal biltegira joan, eta izututa geratu zen, autoa erabat hondatuta ikusita.

Azalpenak eskatu zituen, baina inork ez zion gertatutakoaren berri ematen jakin. Aparkatu zuen lekuan obretan zeudela bakarrik jakin ahal izan zuen. Bost hilabetean ikertzen aritu ondoren, Interneten jakin zuen gertatutakoa. Horma bat bere autoaren gainera erortzen ikusi zuen bideo batean. Egia, azkenean: garabi batek eragin zituen kalteak.

### Udan autoan eraman beharreko agiriak

Autoan zoazenean, garrantzitsua da hainbat agiri "eskura" edukitzea. Denak ez dira nahitaezkoak, baina bai komenigarriak edo gomendagarriak.

#### Nahitaezkoak

Ez badituzu, 3.000 eurora arteko isuna jar diezazuke Poliziari edo Guardia Zibilak..

- **Gida-baimen eguneratua.** Gogoan izan agiri erabat baliozkoak direla gidabaimenaren edo nortasun agiriaren kopia konpultsatuak.
- **Zirkulazio baimena.** Ibilgailuaren datu teknikoak eta jabearen inguruko informazioa ditu..
- **IAT txartela.** Aldeko txostenarekin eta IAT pegatina ikusteko moduko leku batean jarrita.

#### Komenigarriak

- **Aseguruaren poliza eta horren azken ordainagiria,** indarrean dagoela egiaztatzeko.
- **Zirkulazioko udal zerga,** azken ordainagiriaren ordainketaren egiaztatgiri modura.

#### Gomendagarriak

- **Aseguruaren asistentzia-telefonoa.** Gehienek 24 orduko zerbitzua dute, eta poliza kontratatzerakoan emango dizugu, gainerako dokumentazioarekin batera.
- **Adiskidetasunezko Istripu Aitorpenaren kopia,** gure artekaritza bulegotik bidaliko dizuguna.

Anekdotak

Ikerketak

